

Elkarri eskua emanda

Norbaiti eskua emateko arrazoi desberdinak egon daitezke, eta batzuetan ez gara eroso sentitzen. Eskua emateaz, horrek duen esanahiaz eta abar arituko gara jarduera honetan. Ariketa hauek egin ditzakezu:

- Elkar agurtzeko ditugun ohiturak aipatu ikaskidearekin eta gelakoekin.
- Irratiko pasarte bat entzun eta ideia nagusiak bikoteari kontatu, bien artean kontakizuna osatzeko.
- 'Bostekoa eman' esapidetik abiatu eta zenbakiekin lotura duten beste esapide batzuk aztertu.
- Bostekoa emateko modu desberdinei buruz hitz egin taldean.



Argazkia: Peakpx (CC0)



1. Nola agurtzen dugu elkar?



Binaka jarrita, elkar agurtzeko zer ohitura dituzuen komentatu, adibidez, norbait aurkezten dizutenean...

- Ad: Nik oso gertukoei bakarrik ematen diet musu, ezezagunei ez.
- Nik
-

Zuen erantzunak gelakideekin konparatu. Zein da gehien erabiltzen duzuen agurtzeko modua?

2. Eskuek esaten dutena

Entzun Euskadi Irratiko pasarte hau: eskuei buruzko proiektu bati buruz da. Saia zaitetz ideia nagusia hartzen, eta bereziki, galdera honi erantzuten:



- Zergatik aukeratu du eskuen gaia?

.....

.....



<https://labur.eus/QThAk>



Argazkia: Pixabay

Segidan berriz entzungo duzu audioa. Oraingoan, binaka jarrita bakoitzak aukeratu beheko bi galdera multzo horietatik bat (A edo B), eta multzo horretako galderari erantzunez osatu zure zatiaren kontakizuna. Ondoren bikotekideari kontatu.

A MULTZOA

- Nor da protagonista eta agurtzeko zein modu du gustuko?

.....

- Nola izaten ditu eskuak?

.....

- Zer ari da prestatzen?

.....

B MULTZOA

- Ezeroso sentitzeari buruz zer esaten du?

.....

- Nolako eskuak gustatzen zaizkio?

.....

- Zergatik eman dio aitonari eskua askotan azken aldian?

.....

Errepasatu ariketaren hasierako erantzuna bikotekidearekin, eta beharrezkoa bada, aldatu edo osatu ezazue xehetasun gehiagorekin.


3. Bostekoa eman



Talde txikitan jarrita, aztertu zenbakiak erabiliz sortzen diren beste esapide hauei:

- Elkarri eskurik ez emateko esan dute, birusak kutsa daitezkeela.
- Ene! **Hamaika ikusteko jai**oak gara!
- Ni ez naiz sekula gaixotzen, inoiz ere ez. Ez dit batere beldurrik ematen birusaren kontu horrek.
- **Ez zaitetz izan hamalau!** Edonor kutsa daiteke, baita zu ere.
- Mezua bidali dute postaz eta Whatsappez abisua emateko, baina hala ere bertara joan behar izan du galdetzera eta azalpenak eskatzera.
- Hori bai **dela zazpikia!**
- Euskal dantzen ikastaroa antolatu dute. Izena emango dugu?
- Ados. **Zortzikoa** ikasten badugu bada zerbait.

Lotu itzazue beheko taulan dauden esanahiekin.



Esanahiak ikusi ondoren, erabili esapide egokia egoera bakoitzean:

1. - *Kaixo, ni Irati naiz, urte askotarako!*
- *Kaixo, ni Jone, **eman bostekoa!***
2. - Denak lan eta lan, eta ez dit ba esan berak guk baino askoz gehiago egiten duela!
- Ez kasurik egin. Hori bai
3. - Ez! Bost aldiz esan dizut datorren astera arte ez dela liburua liburudendara iritsiko.
4. - Ikuskizun ederra izan da: lehenik abeslariak bi abesti kantatu dituzte, eta ondoren
..... dantzariak.
5. - Lana utzi, etxea saldu eta inor bizi ez den herri batera joan da bizitzera. Hori behar omen du zoriontsu izateko.
- Ene!

4. Eta guk, nola ematen dugu bostekoa?

'Bostekoa eman' esatean ez dugu denok berdin ulertzen keinua. Argazkietan dituzue adibide batzuk: zein egoeratan erabiltzen dituzue? Ba al dago alderik?



Argazkia: Pxhere (CC0)



Argazkia: Pikrepro (CC0)



Argazkia: Pxhere (CC0)



Beste herrialde batzuetan elkar agurtzeko erabiltzen dituzten ohiturak desberdinak dira. Zerrendatu ezagutzen dituzuenak taldean.

ERANTZUNAK

2. Eskuek esaten dutena

EREDUA

Zergatik aukeratu du eskuen gaia? Sentsazio asko biltzen dituen gaia iruditzen zaio eta gutxi landu dena. Eta norbaiti eskua ematean beti konturatzen da nola dagoen, hotz, bero, izerditan... Horrekin bilduma bat egin nahi izan du.

Nor da protagonista eta agurtzeko zein modu du gustuko? Mel Arranz da protagonista, eta berez, besarkada ematea du gustuko agurtzeko garaian.

Nola izaten ditu eskuak? Beti hotz izaten ditu eskuak, eta horregatik eskularruak erabiltzen ditu neguan.


Zer ari da prestatzen? Eskuei buruzko lau minutuko ikusentzunezkoa ari da prestatzen, "Azaletik azalera". Eskuak marraztuko ditu 1.500 aldiz.

Ezeroso sentitzeari buruz zer esaten du? Batzuetan gertatzen zaigula ezeroso sentitzea norbaiti eskua ematen diogunean. Eta ez du zertan pertsona ezezaguna izan, maite ditugunekin ere gertatzen zaigula dio.

Nolako eskuak gustatzen zaizkio? Berdin zaio.

Zergatik eman dio aitonari eskua askotan azken aldian? Aitonaren eta bere eskuen arteko ezberdintasunak marrazteko askotan eman dio eskua aitonari azken boladan, eta gustatu zaio bere eskua hartzea.

3. Bostekoa eman



- *Kaixo, ni Irati naiz, urte askotarako!*
- *Kaixo, ni Jone, eman bostekoa!*
- Denak lan eta lan, eta ez dit ba esan berak guk baino askoz gehiago egiten duela!
- Ez kasurik egin. Hori bai **dela hamalau!**
- Ez **zazpikia izan!** Bost aldiz esan dizut datorren astera arte ez dela liburua liburudendara iritsiko.
- Ikuskizun ederra izan da: lehenik abeslariak bi abesti kantatu dituzte, eta ondoren **zortzikoa dantzatu dute** dantzariak.
- Lana utzi, etxea saldu eta inor bizi ez den herri batera joan da bizitzera. Hori behar omen du zorientsu izateko.
- Ene! **Hamaika ikusteko jaiok gara!**

TRANSKRIPZIOA

OLAIA URTIAGA KAZETARIA. Mel Arranz, arratsalde on!

MEL ARRANZ. Kaixo, arratsalde on.

OLAIA URTIAGA. Inor agurtzen duzunean zer duzu nahiago eskua ematea, bi muxu, besarkada bat...

MEL ARRANZ. Ba, berez, besarkada bat.

OLAIA URTIAGA. Eta eskuak, maiz garbitzen dituzu?

MEL ARRANZ. E, bai, egunero... (barreak)

MAIDER SEGUROLA KAZETARIA. Egunero, baina badago jendea egunean bost aldiz garbitzen dituen ere, konpultsiboki garbitzen dituen.

MEL ARRANZ. Nik bakarrik behin edo.

MAIDER SEGUROLA. Behin, goizetan?

MEL ARRANZ. E, ba, bueno, normalean eguerdian.

OLAIA URTIAGA. Eta neguan? Eskularruak erabiltzen dituzu?

MEL ARRANZ. Bai (barreak). Bai, esku hotzetako (hotzeko) pertsona naiz.

MAIDER SEGUROLA. Aaaa! Esku hotzak berotzeko, eskularruak beti.

MEL ARRANZ. Bai.

OLAIA URTIAGA. Eta eskuetan apaingarririk bai? Ze, nik esaterako, eraztunak erabiltzen ditut. Zuk?

MEL ARRANZ. Ez.

OLAIA URTIAGA. Mel, eskuak izango dira protagonista, eskuz egiten ari zaren ikus-entzunezkoan.

MAIDER SEGUROLA. Ze, eskuz ari da Mel marrazten. Eskubiko eskuarekin arkatza hartu, eta bi esku marraztuko dituzu 1.500 aldiz. Horiek 3.000 esku dira: esku asko. Eskuak kanpotik eta baita azalaren barrutik ere. Eskuei buruzko lau minutuko ikus-entzunezkoa izango da "Azaletik azalera": eskuak protagonista dituen esku-langintza.

OLAIA URTIAGA. Jesus! Mareatu gara e! Ze, zergatik aukeratu duzu eskuen gaia zure proiekturako?

MEL ARRANZ. Bueno, ba, nahiko, sentsazio asko biltzen dituen gai bat iruditzen zait eta inoiz jorratu ez den edo oso gutxitan jorratu den gai bat dela uste dut eta beti norbaiti eskua ematean –batez ere ez norbait agurtzean, baizik eta norbait erresistentzia moduan edo laguntasun moduan eskua ematean, inkluso ezezagun bati korro bat egiteko, dena delakoan- eskua ematean beti konturatu naiz bero dagoen hala hotz, edo gero urduri jartzen zara askotan izerdia dela eta, eta horrelakoak. Horren bilduma bat egin nahi izan dut animazio batean.

MAIDER SEGUROLA. Orduan, eskua emateari buruzko lan bat da baina ez gara bostekoaz ari, ez? Zerbait intimoagoa da.

MEL ARRANZ. Bai.

MAIDER SEGUROLA. Adibidez gertatu izan zaigu, zuk korroren batean esan duzu, baina ez dakit, kalejiraren batean edo giza kateren batean egia da aldamenekoari minutu batez eskutik helduta eman eta zenbait momentutan ezeroso ere sentitu izan gara.

MEL ARRANZ. Bai, eta bueno, askotan ere maite duzun norbaiti eskua ematean batzuetan eroso sentitzen zara baina beste batzuetan ere ezeroso senti zaitezke ba agian arau-sozialak direla eta, edo dena delakoa.

OLAIA URTIAGA. Ze eskua emateak, zer esan nahi du zuretzat?

MEL ARRANZ. Niretzat, ba ekintza, erresistentzia ekintza bat da edonori esku bat ematea, ikur berezi bat iruditzen zaidalako.

MAIDER SEGUROLA. Badaude esku hotzak, esku beroak, badaude beti heze daudenak, ez? Beti izerditan eta kontra, lehor-lehorrak. Zureak esan duzu beti hotz egoten direla. Eta gustatu, nolako eskuak gustatzen zaizkizu?

MEL ARRANZ. Ba, berez, berdin zait. Azken aldian aitonari eman diot askotan eskua, ba, marrazten, bere eskua eta nirearen arteko ezberdintasunak eta marrazteko eta asko gustatu zait, adibidez, bere eskua hartzea.